

ASTEAZKENA

2019/07/03
7. urtea, 1.085. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

**Zizurkilgo
Plazaetxeberri
jatetxea
ustiatzeko
aukera, zabalik**

Uztailaren 15a da
proposamenak
bidaltzeko azken eguna // 4

**Apatta Ilko
orubeen
antolaketa,
zehaztuta**

Ibarrako Udalak planaren
agiriak jarri ditu ikusgai;
abuztuaren 5a arte egin
daitezke alegazioak // 3



Kanpainaren arduradunek Zubimusu zubiaren parean egin zuten aurkezpena; Villabona eta Zizurkilen erosi ahal dira itsasontzi txikiak. JOSU ARTUTXA

Elkartasun lasterketa saharar haurrentzat

11 haur sahararrek Hernialdeko ostatuan igaroko dute uda, eta bi hilabeteko egonaldiko gastuak finantzatzeko itsasontzien elkartasun lasterketa egingo dute hilaren 19an Villabonan, Oria ibaian // 2

Hasi dira Saseta defentsa sistemako auzolandegiak

Asteasuko Pello Errota eskolan daude Aranzadi elkarteak antolatutako ekimeneko boluntarioak; askok memoria historikoa berreskuratzeko nahiak bultzatuta hartu dute parte // 5

**zu eta
BIOK**

LAN ESKAINTZA

Egoitzetarako zaintzaileak behar dira

Baldintzak

- Euskaraz jakitea edo B2 ziurtagiria.
- Ziurtagiri soziosanitarioa.

Harremanetarako: 943 65 36 89 edo gb@zuetabiok.com

Hernialdeko aterpetxean egingo dute lo udan, eskualdera datozen hamaika haur sahararrek. Hori finantzatzeko, itsasontzien lasterketa solidarioa ospatuko da, hilaren 19an, Villabonan.

Itsasoa ez da agortuko 'oraindikan'

Josu Artutxa Dorronsoro

Azken txanpa Saharako haurren alde. Lelo horren atzean hiru ideia bildu nahi izan dituzte Tolosaldea Sahararekin elkarrekin eta Oporrak Bakean ekimenak. Batetik, Sahara herria bera; bestetik, bertako haurrak; azkenik, horien alde gauzatzen diren elkartasun ekintzak. «Azken hamarkada luzeetan, zapaldutako herria izaten ari da Saharakoa. Kaiola batean itxita baleude bezala bizi dira marokoarrek okupatutako lurraldean. Mendealdetik itsasoa dute, ekialdean, berriz, 2.500 kilometro baino gehiago dituen milioika minaz jositako hesi erraldoi bat. Hortaz, askatasunik ezagutzen ez duen herri bat da», dio Lander Etxeberria, Oria Merkatarien Elkarteko kideak.

Saharako herritarrek, «isildutako gatazka bat» jasaten ari direla nabarmentzen du Etxeberriak. «Hori dela eta, sahararrek bi aukera izaten dituzte eskuarrean. Batetik, euren lurralde txiro hartan, oinarritzko giza eskubideen (elikadura edota etxebizitza) urraketa nabarmena ematen den errepresio bortitzean bizitzea. Bestetik, zailtasun handiekin eta bizitza arriskuan jarritz, pateretan ihes egitea. Nazioartekak ere konponbide bat diseinatu eta planteatu zuen, autodeterminazio eskubidearen inguruan, baina ez da errealitate bilakatzen, eta egoera berean eta leku berean jarraitzen dute, 43 urte igaro ondoren ere».



Zubimusu zubiaren parean egin zuten aurkezpena antolatzaileek, haur sahararrak eta laguntzaileak alboan zituztela. J.A.

«Badira, bestalde, euren benetako lurraldea ezagutzen ez duten sahararrak. Aljerian kokatutako errefuxiatuen kanpalekue-tan jaio eta hezi dira, baldintza gordinetan. Udan, 60 gradura helduko dira; guztiz jasangaitza da. Nazioarteko jende askoren laguntza izaten dute, estatuek jaramonik egiten ez dieten bitartean», dio Etxeberriak. Bada, aurtengo ere, eskualdeak ateak zabalik jasoko ditu bertako gaztetxoak, eta «ezinbestekoa da eurekin elkartasun keinu hori izatea».

20 urte dira, Oporrak Bakean programari esker, haur sahararrek lehen aldiz uda Euskal Herrian igaro zutela. Tolosaldera ere, urtero etortzen dira. Aurten, 16 bat haur joango dira harrera familietara. Beste 11 haurrek, baina, Hernialdeko aterpetxean igaroko dituzte gauak. Orain



Villabonako ikastetxeetako ikasleek egin dituzte 2.000 itsasontziak. J.A.

arte, Tolosan egiten zuten lo, baina aurten, Hernialden kokatuko dira. Harrera familia hinkoa ez daudelako egin behar izaten zaie lekua aterpetxean.

ELKARTASUNA, BI ALDEENTZAT

Hain juxtu, aterpetxera datoze-nei bideratuta, antolatu dute Villabonako ibaian egingo den aurtengo berrikuntza: Itsasontzi solidarioen lasterketa, hilaren 19an, 18:00etan. «Familietara joaten diren haurren gastuez, familiak arduratzen dira, euren

borondatez. Hernialdeko aterpetxera joateak, kostu handiagoa suposatzen duela ohartu ginen; beraz, dirua biltzeko behar bat atzeman genuen, modu kolektiboan egin behar zaiolako aurre. Ondorioz, lasterketa xelebre hau egitea bururatu zitzaigun», azaldu du merkataria elkarteko kideak.

Horrelako ekintzen helburua, haurrak gehiago ez ekarri behar izatea dela dio, «uda lurralde aberats hartan igaro dezaten». Hain justu, *Urko* abeslariak bere *Azken txanpa* kantuan dioen bezala, «itsasoa ez da agortuko oraindikan». Beraz, hori berreskuratzea eta inoiz ez agortzea nahi dute.

Dagoeneko salgai daude itsasontzi txikiak, Villabonako eta Zizurkilgo 40 komertzio eta tabernatan, uztailaren 19a bitarte.

2 euroren truke eros daitezke, eta erosle orok txartel bat jasoko du, bere itsasontziaren zenbakiarekin. «Erosle horien izenak jasoko ditugu, zenbakiarekin batera lokalizatuta egon dadin». 2.000 itsasontzi jarri dituzte salgai, eta denak saltzea dute helburu, «lasterketa erraldoia izan dadin, eta diru bilketa ere handia izateko».

Lasterketa egunean, Sacemgo zubitik jaurtiko dira saldutako ontzi guztiak, eta Zubimusu zubira iristen diren lehenek sariak jasoko dituzte. «Horiek, askoren doako eskeintzari esker lortu dituztela azpimarratu du Etxeberriak: «Joan garen taberna eta jattetxe guztiek esan digute otorduak jarriko dituztela sari modura, eskertzekoa izan da». Besteak beste, Aburuza sagardo-

Aurten, 16 haur joango dira eskualdeko harrera familietara. 11k, berriz, Hernialden igaroko dituzte gauak

2 euroren truke eros daitezke itsasontziak. Bildutako diruaren %80 bideratuko da aterpetxearen gastura

tegiak, eta Xaldu, Errota txiki, Xiker, Lainoa, Gerezi, Txurru, Urrizpe, Argoin, Salvadora Jubilatua, Anders Gallery taberne jarriko dute saria.

Horiez gain, Oria merkataria elkarteko kideak eta Zubimusu eta Erniobea ikastetxeetakoak ere eskertu nahi dituzte, azken horietako ikasleek egin dituztelako ontziak. Gainera, saldutako ontzietatik lortutako diruaren kopuru bat jasoko dute. «Hain zuzen, 2 euro horien %20, beraien ikasturte amaierako bidaia finantzatzeko bideratuko da». Hortaz, guztiak salduz gero, 3.000 euro baino gehiago izango lirateke aterpetxearentzat, eta ia 1.000 euro, bidaiarako.

Villabonako Gaztetxekoei ere esker ona adierazi diete, lasterketaren antolakuntzan eta ibaira jaisten lagunduko dietelako. Azkenik, Villabonako eta Zizurkilgo udalak ere eskertu nahi dituzte, guztiekin elkarlanean antolatu dutelako proiektua.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburak.eus-en



Apattako bigarren fasea eremu horretan eraikiko dute. I. SAIZAR

Apatta II eremuko plana behin-behinean onartu du udalak

Ibarrako Udalak zehaztu ditu bigarren faseko orubeen antolaketa, ezaugarriak eta garapena; abuztuaren 5era bitarte planaren agiriak ikusgai egongo dira udaletxean

I. Saizar Artola Ibarra

Ibarrako Tokiko Gobernu Batzordeak behin behineko onarpena eman zion Apattaerreka industrialdeko 18.1 azpieremuaren hiri antolamenduari, baita dagoen ingurumen azterlan estrategikoari ere.

Hasierako erabaki horrekin, Apatta II izenarekin ezagutzen den eremu industrialeko orubeen antolaketa, ezaugarriak eta etorkizunean ezar litezkeen erabileren baldintzak zehaztu dira. Ibarrako Udaleko arkitektoak azaldu duenez, «muga eta baldintza batzuk zehaztu ditugu, eta horren barruan aldaketak egiteko aukera egon daiteke». Hasiera batean, helburua, «industriari bideratutako orube horiek sortzea» izan dela azaldu du.

Gaur egun eraikia dagoen industrialdea Tolosa, Ibarra eta Leaburu-Txaramako lurretan garatuta dago. Orain, ordea, bigarren fase horretako eremu hori Tolosari eta Ibarrari dagokio. Bi udalak, plan berdina tramitatzen ari dira, «koordinatuta ari gara lanean», dio Ibarrako arkitektoak.



Apatta II eremuko behin-behineko plano. ATARIA

Plan horretan jaso dutenaren arabera, Ibarrako zatian, 30.817 metro karratu bideratuko dira industria erabilerarako eta Tolosako eremuan, berriz, 62.140 metro karratu.

Pabiloiez gain, berdegunerako espazioa ere egitea aurreikusita dute, «espazio libre bat eraiki nahi dugu».

Prozedura horrek tramitazioan jarraituko du oraindik denbora luzez, izan ere, onartu dutena behin behinekoa da.

Planaren agiriak ikusgai jarri dituzte udal bulegoetan, herritarrek alegazioak egin eta erantzun bat eman ahal izateko. Abuztuaren 5era bitarte egongo dira ikusgai.

Bizi Nahi elkarteak Rias Altasera irteera antolatu du

IBARRA // Irailerako irteera berri bat antolatu dute Ibarrako Bizi Nahi elkarteak kideek. Galiziara joango dira, irailaren 22tik 27ra, eta Rias Altas inguruetan pasako dituzte egunak. Izen emateko aukera dagoeneko zabaldu dute eta Bizi Nahi elkarteak bulegoetan egin beharko da. Izena ematearekin batera 140 euroko seinalea utzi beharko da, eta denera, 432 euroko ordaindu beharko dira. Prezio horretan, bidaia osoa sartzen da.

Haurren danborradako entseguak hasi dituzte

IBARRA // San Bartolome jaierako haurren danborrada prestatzen hasiak dira dagoeneko, Ibarran. Atzo arratsaldean egin zuten lehen entsegu plaza, eta hurrengo egunak zeintzuk izango diren ere hitzartu dituzte: Uztailaren 9, 16 eta 23an izango dira, plazako estalpean. 20:00etatik aurrera izango dira entseguak.

Zizurkilgo Gazteazulon udako ordutegiarekin hasi dira

ZIZURKIL // Uztaila hastearekin batera, Zizurkilgo Gazteazuloko udako ordutegia hasi berri du. Goizez egongo da irekita, 9:45etik 12:45era bitartean. DBHtik gorako gazteek hartu ahal izango dute parte bertan antolatuko diren mota guztietako ekintzetan.

Udan hilabete eta erdi lan egiteko herri langilea behar du udalak

Uztailaren 15etik abuztuaren 30era herri langile bat kontratatuko dute Berastegin; uztailaren 9rako eman behar da izena

Erredakzioa

Berastegiko Udalak langile bat kontratatuko du uztailaren 15etik abuztuaren 30era bitarte herrian suertatzen diren lanak egiteko.

Lanpostu horretan interesatuta dauden pertsonak uztailaren 9a arteko epea izango dute apuntatzeko. Lanbide Enplegu Zerbitzuko bulegoetan eman beharko da izena.

Egin beharreko lan batzuk zehaztu ditu udalak: Festetako eginbeharrak egitea eta eremu publikoaren mantenua, besteak beste.

Langilearen betebeharre eta lan baldintzei buruz Lanbiden bertan emango dute informazioa, apuntatzeko garaian. Baina udalak apuntatu ahal izateko gutxieneko baldintza batzuk zehaztu ditu: Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, 18 urte beteta izatea, langabezian egotea, Berastegin erroldatua izatea, euskara jakitea eta gidatzeko baimena izatea.

Apuntatzen direnen artean eta oinarritzko baldintzak betetzen dituztenen artean, zozketa bidez aukeratuko dute langilea.



IKASTURTE AMAIERA

Lizartzako Hostotsa abesbatzak, urte guztian zehar prestatutako abestiak herritarren aurrean aurkeztu zituen asteburuan. Ikasturte amaierako kontzertua eskaini zuten Lizartzako elizan. Piano, txistu, perkusio, gitarra eta biolinaz lagundutako melodiak entzuteko aukera izan zen. Guztira, hamabi abestiz osatutako emanaldia eskaini zuen Xoane Esnaolak zuzentzen duen taldeak. ATARIA

Euskal Jairako lantaldeak osatzeko bilera egingo da bihar

ANOETA // Basoko elikagaiak izango da aurtien Euskal Jaiaren inguruan landuko duten gaia. Urtero bezala urrian egingo dute festa Anoetan eta prestatzen joateko bilerak egingo dituzte aurrez. Lantaldeak osatzeko bilera deialdia egin du batzordeak biharko, uztailearen 4rako, udaletxean 18:30etik aurrera. Euskal Jaiaren antolaketan parte hartu nahi duten herritar guztiak azaldu ahal izango dira udaletxera bihar ostegunarekin egingo den bilerara.

Irura Bizi elkarteak bere eguna ospatuko du uztailearen 12an

IRURA // 18:00etan hasita, garai bateko Irura ezagutzeko bisita antzetzua egingo dute plazatik abiatuta, eta poteo musikatuaren ondoren herri afaria izango da plazan. Izen emateak, uztailearen 9ra arte egin beharko dira Aizpuruan, Enaran, Errekalden, Trinketea eta Xaren. Helduek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta umeek, berriz, 10 euro. Platerak eta mahai tresnak norberak eraman beharko ditu. Afa-lostean, Sabin Guarestiren emaldia izango da.

Ozako bailaran zehar irteera antolatu du Aizkardi elkarteak

AMASA-VILLABONA // Igandean, uztailearen 7an izango da irteera eta 05:00etan aterako da hara joateko autobusa Olaederra kiroldegitik. Izen emateak, osteguna baino lehen egin beharko dira Aizkardiren lokalean edo 649 71 71 82 telefonoan. Oza bailaratik abiatu eta lehenik Pico Royo mendia (2.169 metro) igoko dute eta jarraian Arlet (2.200 metro) mendia. Irteera zirkularra izango da eta Aguas Tuertasetik itzuliko dira abiapuntura. 23 kilometroko ibilbidea izango da.

Santioetan, 'Ezkontza' konpartsa aterako da hilaren 26an

AMASA-VILLABONA // Uztailearen 26an, 11:30ean elizako ataritik aterako da Ezkontza konpartsa. 50 urte betetzen dira aurtien lehen aldiz atera zenetik. Eguerdian, Ama Lurra plazan, eliza ondoan, bazkaria egingo da eta izen emateak uztailearen 20ra arte egin daitezke. Horretarako Kutxabankeko kontu korrontean norberaren izena jarritz eman beharko da izena. Helduek 30 euro ordaindu beharko dituzte eta 12 urtera arteko umeek, berriz, 11 euro.



Eraikin osoa erosi du aurtien Zizurkilgo Udalak eta behean dagoen taberna-jatetxea aterako dute lehiaketara. J.M.

Plazaetxeberri jatetxea ustiatzeko kontratua lehiaketara aterako dute

Zizurkilgo abuztuko festak amaitu arte egungo kudeatzaileek eramango dute taberna-jatetxearen ardura; hilaren 15era arte aurkeztu ahal izango dira proposamenak

Erredakzioa Zizurkil

Zizurkilgo Udalaren aurtengo inbertsio nagusienetako izan da herrigunean Plazaetxeberri etxe historikoaren erosketa. Herritarrekin prozesu bat garatu asmo dute udal ordezkariak eraikinarren erabilera erabakitzeko, baina bien bitartean taberna-jatetxearek irekita eutsi nahi diote. «Herriguneko festak amaitu arte egongo dira egungo kudeatzaileak eta maizter berrien bila hasi behar dugu zerbitzuari eusteko», azaldu du Iker Urruzola alkateak.

LAU URTEKO KONTRATUA

Hainbat baldintza ezartzen ditu jatetxe-taberna kudeatzeko aterako den lehiaketak. Hiru urteko iraupena izango du ustiaketa kontratuak eta gehienez urtebete luzatu ahal izango da. Baldintza ekonomikoek dagokionez, hileroko udalari ordaindu beharreko kopurua, gutxienez 800 eurokoa izango da. Interesa dutenek izena emateko aukera izango dute uztailearen 15era arte. Proposamenak Zizurkilgo udal erregistroan aurkeztu beharko dira, udal bulegoetara gerturatuta.

«Hiru-lau urteko epea jarri dugu legezaldi honetan herritarrekin landu nahi dugulako Plazaetxeberriren erabilera, bide orri bat marraztu nahi genuke herriguneko beharrak ikusiz eraikinean egin beharrekoekin, eta ez dugu oraingo erabakiek ondorengo bide orri hori zailtzea nahi. Herritarrek benetako erabakimena izan behar dute», azaldu du Urruzolak.

Lehiaketaren inguruko argibideak nahi dituenak, www.zizurkil.eus atarian aurkitu ahal izango ditu.

Ikasi kazetaritza lanbidea urtebetez BERRIAN!

BERRIAK KAZETARITZAn trebatzeko **bost** lanpostu eskaintzen ditu 2019-2020ko ikasturterako.

Eskaintzen da:

- Praktiketako lan kontratuak.
- 2019ko irailetik 2020ko ekainera bitarteko iraupena.
- BERRIAK Andoainaren duen egoitza nagusian, edo Bilboko, Gasteizko, Iruñeko edo Baionako ordezkartzetan.

Bete beharreko baldintzak:

- Kazetaritza arloan lan egitea ahalbidetzen duen unibertsitate titulua izatea.
- Euskara maila handia.

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza arloan praktikak egin izana.
- QuarkXpress programa erabiltzen jakitea.

Deialdian aurkezteko epea 2019/07/14 artekoa izango da.

Interesa duenak bidal dezala curriculum gizabaliabideak@berriatolosaldea.eus helbide elektronikora, 'KAPR_2019' erreferentzia zehaztuz.

Indusketa lanak egiten ari dira Zizurkilen eta Adunan

Zizurkil, Asteasu eta Adunako udalek auzolandegia antolatu dute Saseta defentsa sisteman, Aranzadi elkarteak gidatuta



Auzolandegietan parte hartu duten boluntarioek Asteasuko eskola dute ostatu. IRATI SAIZAR

Irati Saizar Artola Asteasu

Bosgarren aldiz antolatu dituzte auzolandegiak Aiztondo bailaran. Astelehena izan zuten lehen eguna eta aurren, Adunako Mareamendi inguruan eta Zizurkil Goian, eta Zarate inguruan egiten ari dira indusketak. Asteasun hartu dute ostatu, boluntario lanetan ari diren hamalau lagunek; Elizmendin dagoen Pello Errota eskolako psikomotrizitate gelan pasako dituzte gauak eta eskolako jangelan egingo dituzte otorduak.

Astelehenean iritsi ziren auzolandegietan parte hartzen ari diren kideak Asteasura. Begirale lanetan Manex Arrastoa eta Joanes Karrera ari dira, eta Julien Blanco arkeologoa ari zaie indusketa lanetan laguntzen. Animatu diren boluntarioak 16 urtetik 26 urte bitarteko gazteak dira.

Lehen eguna, astelehena, guztia antolatzen pasatu zuten eta iluntzean, Karlos Almorza historialariaren hitzaldia entzuteko aukera izan zuten. Hark eman zituen testuingurua ulertzeko auzolandegiaren oinarritzko azalpenak. Horren ostean, elkar ezagutu eta izotza hausteko, afaria egin zuten elkartean. Ostiralean, Ione Luloagak hitzaldia eskainiko du Zizurkilen; Alegiako memoria historikoaren inguruan idatzitako liburua aurkeztuko du. Karre-rak emango du hirugarren eta azken hitzaldia, indusketen bigarren astean, Adunan. Memoria historikoa lantzen ari da master amaierako lanean, eta Saseta defentsa sistema hartu du oinarri.



«Indusketetan boluntario aritzeko aukera gutxi eskaintzen dute Katalunian»

JULIA SERVERA
ARKEOLOGOA

Kataluniatik iritsi da Julia Servera Asteasura (Bartzelona, 1994). Arkeologiako gradua bukatuta, Kultura ondarearen kontserbazio eta zaharberritzeari buruzko gradua egiten ari da. Lehen aldiz hartuko du parte horrelako ekimen batean.

Zer dela eta apuntatu zara auzolandegietan?

Lagun batek gomendatu zidan, bera aritua baitzen Aiztondon indusketa lanak egiten. Egia esan, Gerra Zibilaren inguruan horrelako ekimen oso gutxi egiten dira Espainian. Ni Kataluniatik nator, eta han horrelako indusketa batzuetan boluntario moduan aritzeko oso aukera gutxi eskaintzen dute. Horregatik erabaki nuen Asteasura etortzea, baina baita

Euskal Herrian zelako eta ospea duen Aranzadi bezalako elkarte batekin lanean aritzeko ere.

Lehenaldia da auzolandegietan parte hartzen duzuna, beraz.

Bai, Aranzadirekin batera arkeologia proiektu batean arituko naitzen lehen aldia izango da. Aurrez aritu izan naiz Aranzadirekin lanean, baina beste mota batzuetako lanak egin izan ditut. Esperimentzia eta erreferentzia oso onak nituen aurretik.

Zer aurkitzea espero duzue egun hauetan?

Aipatu digutenagatik lubaki batzuetan arituko gara indusketa lanak egiten, Saseta Defentsa Sisteman funtsezkoak izan ziren eremuetan.

Egonaldian zehar hitzaldiak eta azalpenak ere izango dituzue.

Oso garrantzitsua da parte hartzen ari garen boluntariook jakitea zer den benetan egiten ari garena, zer aurkitzen ari garen eta lanak egingo ditugun ingurua ondo ezagutzea. Begiraleek aipatu digutenez, bailarako inguruak ezagutzeko tartea ere hartuko dugu, bertako jendea ezagutzeko eta, bide batez, kultura eta historiaren berri gehiago jakiteko ere.

Aurrez egona zinen Euskal Herrian?

Bai. Niretzat Euskal Herriak aura berezi bat dauka. Eta bertako jendeak ere bai, zalantzarik gabe. Hemengo jendeari nabari zaio bere kultura eta historia maite dituela; hori leku gutxitan ikus daiteke.



«Konturatu naiz zein garrantzitsua den memoria historikoa egitea, idatzita uztea»

MIREN LEGIDO
PSIKOLOGIA IKASLEA

Bigarren urtez jarraian iritsi da Miren Legido (Gasteiz, 2000) Aiztondora. Psikologia graduko lehen urtea amaitu berri du eta iazko esperientzia errepikatzeko gogoz iritsi da.

Zergatik eman duzu izena aurtengo auzolandegietan?

Pasa den urtean ere etorri nintzen. Lagun bat egona zen aurrez, eta hark gomendatu zidan. Alde batetik, memoria historikoren inguruan lan egin behar dugulako etorri naiz, eta garrantzitsua iruditzen zaidalako arkeologia edo historia ikasten ez dutenek ere parte hartzea. Egia esan, aurren, ikasketa ezberdin gehiago dituen jendea etorri gara, zeren, iaz, arkeologia edo historia ikasten ez zuten hiru la-

gun soilik etorri ginen. Uste dut guztion kontua dela auzolandegietan ibiltzea. Niri asko gustatzen zaizkit horrelako lan motak, gainera.

Historiako kontuek interesa pizten dizute?

Iaz Gerra Zibilaren inguruan oso gutxi jakinda etorri nintzen eta asko ikasi nuen. Hitzaldi asko eduki genituen eta indusketak zuzentzen dituzten arkeologoen ere asko dakite gaiaren inguruan. Batetik, historiaz, eta bestetik, konturatu naiz zein garrantzitsua den memoria historikoa egitea, gertatutako guztia dokumentatuta uztea. Horretarako askotan ez dago dirurik, beraz auzolandegiak mugitu behar dira gauza horietarako.

Indusketez gain, zer moduzko giroa sortzen da lantaldean?

Oso ona. Orokorrean, auzolandegietara mugitzen den jendea benetan parte hartzeko interesa daukan jendea da, normalean, jende hartzuna, alai eta lan egiteko gogo duena. Oso ondo pasatzen dugu, baina egia da egiten den lana gogorra dela. Eguzkia egiten duenean eguzkipean eta euria egiten badu euripean aritu behar izaten dugu. Arratsaldeetan tailerrak izaten ditugu eta guztiok elkarrekin ibiltzen gara. Jende asko kanpotik ere etortzen da.

Zer topatzea espero duzue indusketa hauetan?

Batez ere, bala zorroak. Baina objektu pertsonalen bat topatzea asko gustatuko litzaidake, esan didatenez, ordea, oso zaila izango da.

173 langabe gutxiago zenbatu dituzte

Azken hiru hilabetekoaren langabezia datuen arabera, eskualdeko langabezia jaitsi egin da; Tolosaldeak %8,06ko langabezia du

Erredakzioa

Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako datuen arabera, Tolosaldean ekainean 1.856 langabe zeuden, martxoan baino 173 gutxiago.

Jaitsi egin da, beraz, eskualdeko langabezia. Ez da Tolosaldeko joera bakarrik, izan ere, Espainiako Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioak emandako datuen arabera, Hego Euskal Herrian langabe kopurua murriztu egin da lau lurraldeetan, eta Gipuzkoan apaldu da gehien.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuta, %3,8 txikitu da langabezia lurralde horretan.

EKAINEN LANGABEZIA DATUAK

Abaltzisketa. 4 langabe (%2,65); martxoan baino 5 gutxiago.
Aduna. 4 langabe (%1,63); martxoan baino bat gehiago.
Albiztur. 4 langabe (%2,67); martxoan datu bera.
Alegia. 84 langabe (%10,18); martxoan baino 6 gutxiago.
Alkiza. 6 langabe (%3,23); martxoan baino 3 gutxiago.
Altzo. 9 langabe (%5,39); martxoan baino 4 gutxiago.
Amezket. 45 langabe (%9,91); martxoan baino bat gutxiago.
Anoeta. 88 langabe (%8,72); martxoan baino 9 gutxiago.
Asteasu. 42 langabe (%5,43); martxoan baino bat gutxiago.
Baliarrain. 2 langabe (%2,56); martxoan datu bera.
Belauntza. 7 langabe (%5,15); martxoan baino bat gutxiago.
Berastegi. 28 langabe (%5,41); martxoan baino bat gutxiago.
Berrobi. 22 langabe (%7,38); martxoan baino 2 gutxiago.
Bidania-Goiatz. 13 langabe (%4,80); martxoan baino 7 gutxiago.

Elduain. 9 langabe (%7,63); martxoan baino bat gehiago.
Gaztelu. Langabe bakarra (%1,19); martxoan baino bat gutxiago.
Hernialde. 8 langabe (%4,82); martxoan baino 2 gutxiago.
Ibarra. 200 langabe (%9,87); martxoan baino 16 gutxiago.
Ikaztegieta. 21 langabe (%8,97); martxoan baino 6 gutxiago.
Irura. 60 langabe (%6,62); martxoan baino 12 gutxiago.
Larraul. 7 langabe (%5,38); martxoan baino 3 gutxiago.
Leaburu-Txarama. 17 langabe (%10,37); martxoan datu bera.
Lizartza. 21 langabe (%6,40); martxoan baino 2 gutxiago.
Orendain. 3 langabe (%3); martxoan baino bat gehiago.
Orexa. Langabe bakarra (%1,19); martxoan datu bera.
Tolosa. 757 langabe (%8,19); martxoan baino 92 gutxiago.
Amasa-Villabona. 270 langabe (%9,73); martxoan baino 6 gutxiago.
Zizurkil. 123 langabe (%8,57); martxoan baino 2 gehiago.

Ezingo da aparkatu Larraitza auzoko 35 eta 37 zenbakietan

Eskolako eremuan egingo dituzten lan batzuk direla eta, garajeetako sarrera-irteerak bakarrik egin ahal izango dira

Erredakzioa Alegia

Alegiako Udalak jakinarazi duenez, Larraitza auzoko 35 eta 37 zenbakien atzeko aldean ezingo da kotxerik aparkatu lau hilabeteetan, eskolako eremuan egingo dituzten lan batzuk medio. Gara-jeetako sarrera-irteerak bakarrik baimenduko dituzte.

Zehazki, Larraitza auzoko 35 eta 37 zenbakien atzealdean, eskola aldera, ezingo da aparkatu lanek irauten duten epe osoan, kamioiak joan-etorrian ibiliko direlako. Alegiako Udalak auzoko bizilagunei barkamena eta ulermena eskatu nahi die lanek eragin ditzaketen eragozpenengatik. Lanen iraupena gutxienez lau hilabetekoa izatea aurreikusten dute.



Larraitza auzoko irudia. ATARIA

Asuncion klinikako erabiltzaileen %97 zentrorat itzuliko litzateke

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak erabiltzean artean urtero egiten duen inkestaren berri eman du ospitaleak

Erredakzioa Tolosa

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak, urtero, inkesta bat egiten du ospitaleetako erabiltzaileen artean, eta Asuncion klinikak emaitzen berri eman du. Inkesta horren arabera, Asuncioneko erabiltzaileen %97 zentrorat itzuliko litzateke aukeratu ahal izango balu. Era berean, erabiltzaileen %92k zentroaren balorazio orokor «bikaina» egin du. «Inkesta horren arabera, halaber, erabiltzaileen %95ak sendagileen eta erizaintzako langileen gaitasunen bikaintasuna azpimarratu du», esan du klinikak.

Ez dira horiek emandako datu bakarrak. Zentroak 2018ko Jarduera Memoria ere aurkeztu du eta esan du iaz 307.925 jarduera

egin zirela bertan eta zentro periferikoetan, hau da, Tolosako Be- lateko, Andoingo eta Ordiziako osasun zentroetan. Iazko datuei erreparatuta, pazienteen batz besteko egonaldia 6 egunekoa izan zen. Kontsulta gehien traumatologian, oftalmologian eta errehabilitazioan izan zituzten.

Langileei dagokienez, 2018an 308 pertsona izan zituen Asuncionek nominan; «haietatik 232 emakumezkoak eta 76 gizonezkoak, maila operatiboan langileen %78 emakumea izan zelarik». «2018ko datuek, halaber, aditza- ra ematen dute Asuncion klinika bere arlo guztietan oso enpresa feminizatua dela; emakumeak dira zuzendaritza batzordearen %38, erdi mailako arduradunen %50, medikuen %70 eta ordezkari sindikalen %76», gaineratu du. Pasa den urtean 23.517.679,62 euroko diru sarrerak izan zituen klinika eta 23.487.457,79 euroko gastuak.

Imerso kanpainan izena emateko epea, zabalik

ALEGIA // Alegiako Udaleko Gi- zarte Zerbitzuek zabaldu dute 2019-2020 Imerso kanpainan izena emateko epea. Lehen fasean uztailaren 10era bitarte- an aurkeztu litezke eskaerak udaleko Gizarte Zerbitzuetan. Informazio gehiagorako 943 65 47 68 telefono zenbakira deitu daiteke .

IV. Goitibehera Jaitsieran izena emateko aukera

ALEGIA // Karmen jaietako goiti- behera lehiaketan parte hartu nahi dutenek izena eman deza- kete jada. Uztailaren 13an izango da Galarretako bidean behera. Izena emateko azken eguna hi- laren 9a izango da, eta Euskal Herriko Inertzia Kirolen Federa- zioaren webgunean eman behar da (www.ehikf.eus).

Hilberriak eta urteurrenak

- II. URTEURRENA -



Iñigo Etxaniz Epelde 'Buru'

1966-09-18 / 2017-07-03

Tailerreko lagunak

AZPEITIA, 2019ko uztailaren 3a

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

**ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN**

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Iñaki Olano garaile, Triku Trail mendi lasterketan

21 kilometroko ibilbidean altzotarra izan da azkarrena 1.47.37ko denborarekin; emakumezkoetan Oihana Kortazarrek errekorra ezarri du.



Iñaki Olano helmugan, podiuma osatu zuten beste bi korrikalariekin. IÑIGO ORELLA

Erredakzioa

Altzo

Etxarri Aranazko Triku Trail mendi lasterketaren seigarren edizioa jokatu zen igandean. 244 parte hartzaile izan ziren irteeran, eta 204 iritsi ziren helmuga-

ra. Beroa izan zen protagonistetako bat, horregatik, irteera ordubetez aurreratu behar izan zuten antolatzaileek. Gizonezkoetan Iñaki Olano izan zen azkarrena, 1.47.37ko denborarekin. Emakumezkoetan, berriz,

Oihana Kortazarrek irabazi zuen lasterketa, ibilbideko errekor berrira jarritz: 1.57.04.

Olanok, bigarren sailkatu zen Xabat Manzisidor azpeitiarrari 2 minutu eta 5 segundoko aldea atera zion. Xabi Vegas Lopez De Uralde izan zen hirugarrena, azpeitiarrarengandik minutu eskasera: 1.50.46. Eskualdetik korrikalari gehiago izan ziren. Gizonezkoetan, Mikel Senperena abaltzisketarrak 14. amaitu zuen, 1.57.00ko denborarekin. Berrobin bizi den Jon Altuna ibartarrak, berriz, 17. egin zuen 1.57.57ko marka ezarritz.

Emakumezkoetan, eskualdeko bi ordezkari izan ziren Etxarri Aranazen. Maialen Garciarena berastegiarrak 17. amaitu zuen, 2.49.48ko denborarekin. Azkenik, Ainhoa Eiguren irurarraren marka 2.50.02koa izan zen.



Tolosa CF Gimnastikako neskak, dominekin eta garaikurrekin, Zaragozan. ATARIA

Tolosa CF Gimnastikakoak txapeldun, estatu mailan

Zaragozan jokaturako Espainiako Kopako bigarren fasea irabazi dute Lehen Mailakoek eta junior mailakoek

J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Denboraldiari amaiera eman dio Gimnastika Erritmikoko Espainiako Kopak. Asteburu honetan, Zaragozan jokatu da bigarren fasea, eta bertan izan dira junior mailako nahiz Lehen Mailako Tolosa CF Gimnastikakoak. Bi mailatan, taldekako txapelketa irabaztea lortu dute.

Junior mailan, Carla Aranzabe, Mara Herrera, Ismene Agirre, Onintza Sukia, Aitane Goikoe-txea eta Ane Alustiza aritu dira 3 zinta eta 2 uztaietara. Tolosarrak, beste 16 taldeekin lehiatu dira. Lehen Mailan, berriz, Anne Lezea, Joane Zugasti, Irati Agirre, Iratxe Martin eta Saroi Eskisabel 5 pilotekin aritu dira, beste 6 tal-

deren aurka. Eskisabelen esanetan, «sentsazio oso onekin geratu ginen, baina ez genuen espero irabaztea. Azken asteetan ezin izan dugu elkarrekin entrenatu, eta beraz, oso zaila iruditzen zitzaigun maila ona mantentzea, aste bateko epean galera fisikoa handia izan daitekeelako». Lehen Mailako taldeak, 17.300 puntu lortu zituen. Bigarren eta hirugarren, Valentziako Roquette Benifaio eta Almara Burjassot taldeak izan ziren, 16.000 eta 15.150 punturekin. Juniorrek, bestalde, 15.250 puntu lortu zituzten. Eibarko Ipurua taldea sailkatu zen bigarren, 14.200 punturekin. Hirugarren, Gaztela-Mantxako Palas taldea izan zen, 13.900 puntu lortuta.

Maria Felisa Okomok Euskadiko errekorra ezarri du

Azken asteburuetakoa emaitzei esker, markak hobetzen ari dira Tolosa CF Atletismokoak. Horietako bi, Espainiako selekzioarekin aritu berri dira.

Erredakzioa

Tolosa

Ekaineko azken-aurreko asteburuan, Castellon jokatu zen Espainiako Atletismo Txapelketan, 18 urtez azpikoen mailan, eskualdeko atletek emaitza bikainak lortu zituzten. Maria Felisa Okomo, Espainiako txapeldunorde geratu zen pisu jaurtiketan, 14,68 metroko jaurtiketarekin. Euskadiko errekorretik 4 zentimetrorra geratu zen. Joseba Larrauri irurarrak 200 metrotan brontzezko domina lortu zuen, bere marka 40 ehunenekotan hobetuz. 21,86ko marka hori Gipuzkoako 18 urtez azpikoen errekorra da. Nora Ituarte 100 metrotan aritu zen lehian. 12,53ko denbora egin zuen, bere markatik oso gertu, eta finalerdietara pasa zen. Mikel Ezkerrok 110 hesietan 14,82ko denbora egin zuen, bere marka 40 ehunenekotan hobetuz eta finalerdietara iritsiz. Mikel Irastortza ere proba berean aritu zen, bere marka 37 ehune-

nekotan hobetuz eta finalerdietarako sailkatuz: 15,13. Markel Acostak, berriz, hesi batzuk jo eta gero ez zuen kanporaketa gainditzerik izan. Azkenik, Ander Martinez De Rituartok pertika-jauzian debuta egin zuen Espainiako txapelketa batean, 3,86 metroko langa gainditzea lortuz.

Emaitza horiei esker, Okomo eta Larrauri Espainia eta Portugalen arteko Topaketarako hautatuak izan ziren, Espainiako selekzioarekin lehiatzeko. Pasa den larunbatean ospatu zen nazioarteko topaketa hori Madrilan, eta guztira, Tolosa CFko bederatzi kirolari aritu ziren, gazteen eta beteranoen mailatan.

Pisu jaurtiketan, Euskadiko 18 urtez azpiko marka lortu zuen Okomok, 15,03ko markarekin. Larrauri ere fin ibili zen 100 metrotan 11,13ko markarekin. Bere marka pertsonaletik 3 ehunetara geratu zen. 4X100 metrotan ere parte hartu zuen Larraurik, portugaldarrei erraz irabaziz.

TARRAGONAN, ZORTERIK EZ

Asteburu honetan ere, 23 urtez azpikoen Espainiako Txapelketa jokatu zen Tarragonan. Tolosa CF-ko lau kide izan ziren bertan lehiatzen. «Ez zuten zorte handirik izan eta emaitzak ez ziren esperotakoak izan», adierazi dute taldetik. Julen Martinek, 110 hesietan hartu zuen parte. 16,05 izan zen finalerdietako bere denbora. Eunat Martinez De Rituartok gerturatze lasterketan arazoak izan zituen altuera jauzian. Bere marka 1,55ekoa izan zen. Paula De Juanek 400 hesietan parte hartu zuen, bosgarren denbora onenarekin finalerako sailkapena lortuz. Finalean, ordea, ez zuen parte hartu, arazo fisikoengatik. Maddi Perurenari ere gauza bera gertatu zitzaion, 400 hesietan. 1,08ko marka txukuna lortu zuen, baina ezin izan zuen finalean lasterka egin. Laurek ere, Euskadiko absolutu mailako txapelketa jokatu dute hurrengo asteburuan.



DEL POZO NAGUSI DONOSTIAN

Larunbatean Donostiako XI. Emakumeen Triatloia jokatu zen eta Paula Del Pozo nagusitu zen. Alegiarrak 29 minutu eta 19 segundo behar izan zituen lanak amaitzeko: Igerian 300 metro, bizikletan 8 kilometro eta lasterka 2 kilometro. Podiuma, Ihintza Urainek eta Amaïur Esnaolak osatu zuten, hurrenez hurren, 33.24ko eta 34.14ko denborekin. MARIA BORRACHERO



ASTEAZKENA, 2019KO UZTAILAK 3
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ZORION AGURRAK



Urte askoan Aitor!

Lizartza. Uztailaren 1eko partez, Lizartzako lagunen partez urte askoan Aitor!
Osasuna, maitasuna eta askatasuna!!!



Zorionak Aitor!

Lizartza. Urte askoan Iturralde Agirrebarrena familiaren partez.



Urte askoan Andoni!

Leaburu-Txarama. Zorionak Andoni!



Zorionak!

Kaxoiko fruitu lehorrak baino hamai-
ketako gozoagoa espero dugu.
Paaaa-kooo!

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

**Argazkia bi egun lehenago
ekarri mesedez**